

GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK ANTOLATZEN DITUZTEN TOKI ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK, 2017

Gazteriaren Foru Erakundea

XEDEA

Gazteekin egiten diren proiektuak finantzatzea, toki erakundeek euren herrietako gazteen premiak asebeteko dituzten zerbitzuak sustatu ahal izateko. Dirulaguntzak elkartasuna, tolerantzia eta berdintasuna sustatzen duten proiektuetarako emango dira, baldin eta jardun eremu hauek lantzen badituzte:

Aisialdi hezigarria

Animazio soziokulturala.

Hezkuntza ez-formala.

Gazteentzako informazioa

* Gazteak izango dira 7 eta 30 urte bitartekoak.

ONURADUNAK

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko udalak, Gasteizkoa izan ezik, koadrilak eta administrazio batzarrak.

LAGUNDUKO DIREN EKINTZAK

Dirulaguntza jasotzekotan, proiektuek honakoak egin behar dituzte:

- Gazteentzako ekipamenduak sustatu eta indartu: gazteklubak, gaztelekuak, gaztegunek, gazte informazioa..
- Hezkuntza ez-formaleko programak eta gizarte eta kultur programak garatu, aisialdian.
- Gazteek herriko gizartean eta kulturean duten parte hartzea eta konpromisoa bultzatu.

*Lehentasuna emango zaie lehenengo aldiz egiten diren edo izaera berritzailea edo berria duten programa edo jardueri.

EPEA

Eskabideak aurkezteko epea **2017ko UZTAILAREN 28**raartekoa izango da.

AGIRIAK

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.
2. Eskaera egiteko baimena eta gastua partez finantzatzea onartzen dituen osoko bilkuraren edo batzordearen erabakiaren edo alkatetzaren dekretuaren ziurtagiria.

b) Berariazko agiriak:

1. Programaren proiektua, azalpen gisa, eta bereizirik aipatuz honako hauek:

— Helburuak.

— Proiektua, gauzatzekoak diren jarduerak eta jardueren egutegia.

— Parte hartzaile kopurua, sexuaren eta adinaren arabera xehaturik.

— Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua, berariaz adieraziz zeintzuk diren lehentasunak eta zer baliabide material eta giza baliabide dauzkaten, eta, orobat, zehaztea finantzaketa iturriak eta interesekotzat jotzen den beste edozein informazio.

Ezingo da aurkeztu proiektu bat baino gehiago.

ARAUDI ERREGULATZAILEA

[2017ko dirulaguntzetarako deialdia, gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki era kundeentzako\(2017/06/28ko ALHAO\).](#)